

## **Arabak kultura espazio independenteen sarea bultzatzen du, 100.000 euroko laguntza deialdi berri batekin**

*Ekimenaren helburua da arte sorkuntza babestea eta kultura ehuna indartzea lurraldean eta Trebiñuko enklabean*

**Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 31a.** Arabako Foru Aldundiak, Kultura eta Kirol Sailaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean arte eta kultura sorkuntza sustatzen duten kultura gunek independenteentzako 2026ko dirulaguntzen deialdia onetsi du.

Laguntza lerro horrek 100.000 euroko zuzkidura du, eta espazio kultural independenteen zeregina indartu nahi du, sorkuntza artistikoaren, ikerketaren eta bitartekaritza kulturalaren motor gisa, bai eta herritarrekiko lotura ere.

Mota horretako espazioak kudeatzen dituzten pertsona eta erakunde pribatuei zuzenduta dago, lurraldean topaketa, elkarrizketa eta parte hartze kulturala sustatuko duen sare bat sendotzeko. Arte bisualak, eszenikoak, musika, literatura, ikus-entzunezkoak edo bertsolaritza bezalako esparruetako proiektuek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, baldin eta 2026ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 30era bitartean garatzen badira.

Laguntza deialdi hau ALHAOn argitaratuko da **2026ko abuztuaren 31n** eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean. Eskabideak aurkezteko epea **15 egun baliodunekoa izango da 2026ko irailaren 1etik aurrera**.

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka bidez egingo da, eta ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira aurkeztutako eskabideak. Ebazpena deialdia **argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean** emango da, hau da, **2027ko otsailaren 28a** baino lehen.

Ekimen horrekin, Arabako Foru Aldundiak berretsi egiten du kultura eredu anitz, hurbil eta egituratzaile baten aldeko apustua, zeinak aitortzen baitu espazio independenteek balio handia dutela lurralde osoko berrikuntza, esperientazio eta dinamizazio kulturalerako.